

7. BALIABIDEAK

Gure baliabideak oso eskasak dira baina 2 inbertsore txinatarrei esker hornitzaile batzuekin jarriko gara kontaktuan, eta gainera haiek esperentzia handia dute, horrela laguntza eskeiniko digute eta hobetu dezakegu. Guk proportzionatuko ditugun baliabideak proiektua aurrea eramateko, gure ideia eta bakoitzaren abileziak.

Aiora Andueza, ingieneritza arloaren buruzagia izango da eta txinatar bazkideen baliabideekin eta langile adituekin algoritmoa garatu egingo dute. Beraz, produktuaren funtzionamenduataz arduratuko da.

Naia Goñik, berriz, enpresaren publizitatea eramango du. Influencerrek egin beharko dituzten ekintzak antolatu beharko ditu. Baita ere, gure produktua promoziatzeko egin beharko diren konferentzia, ekitaldiak... eratuko ditu.

Ainara Escuderok, aldiz gure hornitzaileekin, bazkideekin eta bezeroekin kontaktua mantendu egingo du. Oso garrantzitsua izango da, beraiekin harremana ona izan dadin funtsezkoa delako eta negoziatu beharko duelako gure aurrekontuetara moldatzeko.

Nahia Prietok, bukatzeko, enpresaren kontuak eramango ditu. Enpresak izan dituen gastu eta irabaziekin lanean arituko da, eta arlo bakoitzari eskaini diezaiokegun dirua zehaztuko du.

Lehen aipatu dugun bezala, gure bazkideek ere gure proiektuan parte hartuko dute, eta beraien fabrika bat emango digute. Gainera, sektore honetan lan egiten dutenez aholkatuko digute eta laguntzeko aukera izango dute.